

Pil



bi ean


1998ko Maiatza

10. zenbakia

«AZTERKETEN ORDUA...»



inprimategia • ifinoa. 943 76 27 41 • bergara



Bizikleta gustatzen bazaizu!

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile bakarra

Iñigo Igartua



500 m², ALMAZEN eta DENDA BERRIA

BIZIKLETAK :

**KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL, TANDEM eta
ZIKLO-KROSSerakoak.**

Era guztietako ERROPAK, OINETAKO edo ZAPATILAK

Era guztietako KONPONKETA eta ARREGLOAK

BIZIKLETAK GARBITU eta ENGRASE ZERBITZUA

Zubieta kalea 5-7

Tfnoa. 943 - 76 11 21 / Faxe 76 06 75

Mobila 989 76 11 21

posta kutxa 9

20570 BERGARA

Gipuzkoa

GOL S.A. industriak

Tornileria-estanzioa

eta extrusioa hotzean

Tfnoa. 943 - 75 21 00

FAX 943-751712

20590 SORALUZE

ZORIONAK PIL PILEAN!! ZORIONAK SORALUZE!!

Gure herri maiteak deitua iritsi zinen gure artera. Oinutsik eman behar izan zenituen zure lehen urratak, lausos besterik ez baike nituen zure orriak janzteko. Hasiera latza eta apala hain helburu sendoa bete behar zuenarentzat. Fotokopiagailu zahar baten zarataren oihartzunak ekarri zintuen lehendabizikoz gure eskuetara. Ilusioz beterik banatu zintugun hasiera ezinbestean gutxi batzuen artean. Baina zuk sorturiko interes bereziak berehala ekarri zituen geurera euskararen alde lan egiteko prest zeuden hamaika lagun. Orduz geroztik orduak eta orduak eman behar izan ditugu denontzat onuragarri izan diren aldaketak gauzatzen. Bi urte hauetan lanerako gogo biziak eta gure arteko harreman apartak eraman gaitu gaur daukaguna lortzera. Ezin esan dezakegu bidea erreza izan denik, ahalegin honetan lortu dugu zure itxura hobetzea, hizkuntza aberastea, Soraluzeke etxe guztietara heltzea.

Beraz ba, gure 10. ale honetan 10eko bat eman nahi diogu gure aldizkari presiatua irakurtzen duenari, 10eko bat diru laguntzak ematen dituenari, hala nola Udala, denda, taberna lantegi eta bestelako erakundeei, eta nola ez 10eko borobil bat bere denbora libre apurra pil pilean egiteari eskeintzen dion lantalde jator eta zoragarri honi!

Zorionak pil pilean! Zorionak Soraluze!!

*Guru

AURKIBIDEA

Editoriala.....	1
Gutunak.....	2-3
Ipuina.....	4
Gizartea.....	5-7
Gaurkotasuna.....	8-9
Kirola.....	10-15
Kronologia.....	16-17
Kultura.....	18
Kale inkesta.....	19
Berbak.....	20
Musika kontuak.....	21-22
Sutondoaren epelean.....	23-24
Sukaldaritza.....	25
Horoskopoa.....	26-27
Gaztetxoko.....	28-29
Lehiaketa.....	30
Hormatzulo.....	31
Agenda.....	32-36

ARGITARATZAILE: Pil Pilean, 27 PK. **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** **Gizarte saila:** Eduardo Pombar, Maite Etxeberria, Larraitz Lakuesta. **Gaurkotasuna:** Aitor Gabilondo, Maite Elizburu. **Kale Inkesta:** Amaia Aguirre, Aitziber Gantxegi. **Kirola:** Iñaki Alberdi, Juan Alberdi, Mikel Garcia. **Kultura:** Ubane eta Egoitz. **Musika Kontuak:** Pedro Deza. **Berbak:** Gurutze. **Sutondoaren Epelean:** Gorka Prieto. **Hormatzulotik Begira:** Maite Etxeberria. **Kronologia:** Egoitz Unamuno, Ubane Madera, Loiola Madera, eta Sabin. **Horoskopoa:** Oskar Elizburu. **Ipuina:** Joserra Gomez. **Lehiaketa:** Gurutze. **Txikitxoko:** Guru. **Agenda:** Elene Alberdi eta Maite Elizburu. **ARGAZKI ARLOA:** Gurutze eta Amaia. **HIZKUNTZA ARDURADUNA:** Pilpilean. **PUBLIZITATEA:** Ander Epelde. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Gorka Prieto. **TIRADA:** 1500 ale. **INPRIMATEGIA:** K3 (Bergara). **COPYRIGHT:** Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea:
SORALUZEKO UDALA

Errefuxiatuak euskadin libre



Hiru egun besterik ez!!

Luis Casares herrikidea, orain dela bi urte hil zen Iparraldean. Haren omenez, Karakate inguruan monolito bat jarri genuen martxoaren 28an, lehenengo argazkian ikusten den bezala. Bigarren argazkia hiru egun eta gero aterata dago. **MONOLITOA APURTUA! NOR IZAN OTE DA?** Ez dakigu, baina ez da lehenbiziko aldia. Iaz, berdina gertatu zen, monolitoa apurtu zuten eta alboan landatu genuen zuhaizka ere hil zuten. Momentuz, aurten landatutako

zuhaitza han dago erdi loratuta, eta denolk uzten badugu, bizirik jarraituko du, gaur egun Luis Casaresek gure artean bizirik jarraitzen duen bezala. Euskal Herrian tolerantzia hitza aho askotan dago egunero, baina agian, hitzez bakarrik ezagutzen da eta ez ekintzez, zeren, **ZEIN TOLERANTEK EGINGO LUKE HAU?**

Soraluzeko Amnistiaren aldeko komitea !

17 URTE.....ASKI DA!

Aurtengo maiatzean, Joxean Arluziagak 17 urte beteko ditu espetxean Euskal Herri Askatu bat nahi eta defendatzeagaitik. Legeak beteko balira, Joxean orain dela bi urte kalean egon beharko litzateke. Urte guzti hauetan, hamaika kartzeletan zehar erabili dute, bertan, hainbat tortura, isolamendu, gose greba, txapeo...jasan behar izan dituelarik. Askotan bere bizia arriskuan jarritz, espetxeratuek legez dituzten baina betetzen ez diren eskubideak defendatzearen (senideen bisitak...).

Esan beharrik ez dago, guzti honek senide eta lagunendako dakarren sufrimendua, minutu gutxiko bisita izateko hainbat eta hainbat kilometro egin beharra (batzuten bisita gabe uzteko aitzakia haundirik ez dutela jakinda) edo eta kartzeleroen eskuetan egon eta zein egoeratan dagoen jakin gabe.

600 presotik gora ditugu egoera berdinean eta hau ez zen horrela izango Euskal Herria eta Estatu Espainolaren artean dagoen gatazkaren aurrean bi aldeetako agintariiek zerbait gehiago egingo balute, baina honen ordez, beraien bizitza lasaiean jarraitzen dute Euskal Herriak hainbat eta hainbat aldiz oihukatu duen Askatasunari jaramonik egin gabe, eta horren ordez urteetan jasan dugun errepresioa gogortuz.

Baita ere besarkada bat Espainol Estatuan dispersatuta dauden gure beste herrikide presoeci.

Amnistia eta Askatasuna

Soraluzeko Amnistiaren aldeko komitea

Euskal langileok demokrazia eta bakea behar dugu! Autodeterminazioa

1978ko espaniar konstituzioak, Euskal Herritarrak baztertuta, egin zenetik teorikoki berdintasun demokratikoa aldarrikatzen du.

Lotsagabe esaten digute, gaur egungo Eskubide Estatuan edozein aukera politiko defenda daitekeela baita alternatiba independentistak ere. Hau aurpegia eta demagogia galanta?

Hego Euskal Herriko abertzaleok ondo dakigu nahiz eta zenbait interpretazio interesatu eta nahastaileak egon, desabantailan gaudela hasieratik Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubidea ukatzen baitu espaniar lege konstituzionalak. Baina argi daukagu arrazoi teorikoa gure alde dagoela praktikan Euskal

herritar gehiengoaren borondatea sentituz eta errebindikatur berezko eskubide hau.

Bestalde eskubide hau demokrazian ezinbestekoa izanik, bere onarpena eta artikulazioa, ibilbide demokratikoa aberastu eta politika proiektu guztiak egoera berdinean jarriko lituzke borroka politikoan.

Nahiz eta hainbeste bider entzun eta irakurri Demokrazia hitza frankismoaren semeen ahotik, G.A.L.ekin lotutako usteltzaileak eta ideia antieuskaldunen hizlariak, ; demokraziaren porrotean pentsa daiteke. Horientzat demokrata iztea E.T.A.ren aurkakoa izatea da, hauxe da helbururik gabeko politikoak daramaten bidea, bide

antzua. "Dirudienez jaten ari garen indarkeria botereari gustatzen zaio"

L.A.B.etik zera diogu, liskar politikoak irtenbide politikoak behar ditu. Demokrazia eta bakearen borrokan Euskal Herriak indartzale eta demokrata arteko sasi lotura horrekin hautsi egin behar du, horixe baita espagnolismoaren jokoa eta horren ordeztu muinari heldu behar dio.

Euskal demokratak dira euskal herritarrak berak bere etorkizuna, politikoak, ekonomikoak, gizartekoak eta kulturala dutela onartzen dutenak.

Soraluzeko L.A.B.

Errespetatu ditugun ibaiak ahateak!

Denok dakigu Deba ibaiaren egoera nolakoa den, baita duen kutsadua maila altua ere.

Azken urteotan ez da bizitarik ibaian, arratoiena izan ezik eta azkenik lortu dugu ahate talde handi bat izatea. Badirudi gure ibaira ohitu direla, eta gus-tura daudela bertan beraien bizilekua finkatu eta txitak izan baitituzte.

Plaentxiar gehienak pozik gaude hau ikusita, baina badirudi badaudela egoera honetaz baliatzen diren pertsona batzuk. Idatzi honen bidez hau salatu nahi nuke. Balkoitik erre-kara begira ari nintzela bi gizon heldu errekan azaldu ziren. Be-

rehala konturatu nintzen txitak harrapatzerantz zetoze, eta nere susmoak ez ziren okerrak izan. Bi gizonetako batek ur ertzera jeitsi eta hiru txita harrapatu zituen batek ihes egin zion. Txitak zertarako behar zituzten galdetu nienean hazteko zirela erantzun zidaten, eta ezin izan nuen ezer egin hauek bere lekuan uzteko. Nire galdera zera da: Ez al da hobe txitak bere amarekin eta behar duten inguruan haztea? Azkenik gauza bi eskatu nahi nituzke:

*"Inkubazio" garaia da, eta aha-teak arraultzak jartzen ari dira, horregatik errespetu pixkat eskatu nahi nieke, batez ere erreka

aldean ibiltzen diren txakurren jabeek. Ahal den neurrian behintzat lotu zuen txakurrak ahate eta arraultzetara hurbil ez daitezten.

*Badakigu Soraluzekok brigadako pertsona batek pentzua botatzen duela eta txalotzekoa dela uste dut, udaletxeari eskatu nahi nioke sarriago pentzua botatzea.

Besterik gabe, errespetatu ditugun gure ibaiaren bizitza.

Jon Elizburu Larrañaga

Urratsen norabidea, norberak daki norako bidea

Urte osoak lanean eman zituen, eguneroko ordu gehienak, urteak aurrera eta ez zuen bizitzaren norabidea aurkitzen, lanean ez zegoenean amets egiten zuen gehienetan paradisutar lurraldeekin; lanean ere askotan burua galtzen zuen bere ustezko pentsakerekin. Lagun arteko elkarrizketetan entzunda zeukan bazegoela lurralde bateko bailada baten mendiz babestuta zegoen magiaz beteriko herri dotore bat. Istorio harrigarriak kontatzen ziren herri eta biztanle haietaz. Bere lanaren izerdiarekin eskuratutako ondasunak banatu eta gainean zeramatzan jantziak eta beste tresna bakan batzuk hartu eta bidean jarri zituen bere oinak istorioek zioten herriruntz. Mendi, baso, basamortu, ibai eta itsasoak zeharkatu ondoren entzunda zuen bailarara iritsi eta bururatuta zeukan herrira bideratu zituen bere urratsak. Herria bistan zuela lasai egin zuen bidea, herriko sarrerara heldu eta hantxe ikusi zuen bazter batean eserita ile zuridun gizon bizardun, zahar, argi eta jakintsu bat, arropa zuriz dotore jantzita, une batez begira geratu ondoren alboan jarri zen eta honela hitzegin zion:

-Agur jauna!! Ba al dakizu hauxe den jendeak dioen herri ospetsu hori, beti festan dagoen herria, giro alai bizi diren lagunak, adiskidetasunez, beteriko gizarte, maitasunez benetako irrafar naturalak banatzen dituen jende langilea?

-Bai gazte hauxe da, -esan zion graziaz beteriko irri bare batekin.

Eta gaztea herriruntz barruratu zen, eskua altxa eta agurra adieraziz.

Bapatean beste gazte bat heldu zen herritik ehun metrotara zegoen mendi tontor batera. Azkar eman zituen herri sarreraraino urratsak, zaharrarengana hurbildu eta tente zegoela berbetan hasi zitzaion:

-Kaixo ! Esango didazu hauxe den istorioak dioen herri madarikatu hori, batak besteari lapurten dioten jendea lizunkeriaz beteriko gizakiak, gorrotoa jaun eta jabe duen azpikeria, baita maltzurkeriaren erreinua ere, bekatu guztien lagun diren jende okerrak: drogazale, mozkor, alfer, hiltzaile, putazale, basati, lapu, rgaizto, jokolari, zoro, gaizkile, istiluzale, zikoitz, gezurti nazkagarri, diruzale mamu gaixo eta ustelak?

-Bai gazte, hauxe da.

Eta gazteak irrifar alai batekin bere poza adieraziz herri barnera bideratu zituen pausuak.

Kale ertz baten zegoen gizon bat, zahar jakitunaren albora hurreratu eta hauxe esan zion:

-Entzunda neukan, zahar jakintsu bat zinela baina ikus entzun dudana aztertuta, esango dizut zoro bat zerala, zeren eta bi gazten planteamendu desberdinei erantzun berdina eman baitiozu.

-Halaxe da gizona, eta esango dizut zergatik:

- Bakoitzak bila dabilena aurkitzen dabelako.

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia eta bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE
Telefona: 752375

BERAIEN LEGEA BETE IZAN BALUTE, JOXEAN DUELA 3 URTE ETXEAN EGON BEHARKO ZEN

Joxean Arluziaga preso soraluzetarra kartzeleratu zutela 17 urte pasa dira maiatzaren 10ean, eta duela 3 kalean izan beharko zen. Ia kondena osoa bete duen herritar honek 3 seme-alaba ditu, bat jaiogabe eta beste biak oso gazte zirela sartu zuten espetxean. Bere emazte Maribelekin hitz egin dugu beraren berri izateko.

- Zein da gaur egun Joxeanen egoera?

- Momentu honetan osasun aldetik nahiko ondo dago, baina kontutan izan behar da 17 urte hauetan, 12 gose greba egin dituela bere eskubideak eskatuz eta horietariko bi 35 egunekoak izan direla; beste batzuk 20 egunetakoak eta besteak 10, 12 eta 15 egunetakoak. Operazioak ere izan ditu, bat meniskoa izan zen eta besteak, komisaldegian jasan zituen tratu txar eta torturengatik, hatzamar baten arazoa izan zuen, tendoi bat okertuta utzi ziotelako. Ikasketak ere burutu ditu eta kazetaritzako 5. maila egiten ari da eta ahal duenean, gartzelaren arabera,

larruarekin eskulanak egiten ditu


- Eta lege mailan?

- Ez daukagu inolako erantzunik "Instituciones Penitenciarias" delakotik, kondena bete beharrean dago eta hori 99.eko uztailean litzateke. Preso sozialei aplikatzen

diote lege hau, baina politikoei ez.

- Zer suposatu du zuentzat euskal presoen dispersioak?

- Alde batetik km. asko egitea eta bestetik bakarrik ibili beharra, horrek dakarren hondamen



Joxean Arluziaga

ekonomikoarekin.

- 17 urte oso luzeak dira, esperientzia ugari izango zenuten.

- Bai guk eta bai berak, esperientzia oso latzak, gogorrak. Joxean Puerton (Cadiz) egon zen, gehienetan txapeopean. Herreran (Ciudad Real), 9 hilabetez bisitarik gabe. Alcalan egon zenean askotan haraino joan eta bisitarik gabe gelditzen ginen. Cordoban eta Gijonen ere egon zen. Langraitzeko esperientzia oso txarra izan zen, txantaiak egin nahi izan zizkiotelako damutu zedin; zigor bezala Burgosera eramán zuten, eta han daukate gaur, inongo aplikapenik gabe hiru urtetan.

- Familian zer eragin izan du

egoe ra honek, seme-alabak nola hazi dira aitarik gabe, zuretzat nolakoa izan da guzti hau?

- Ezin da azaldu zelako gogorra den baina norbait maite duzunean ez dago aurrera jarraitzeko oztoporik.

Egoera ez da normala eta ama bezala beste erantzun bat eman behar duzu; gizarlean zure umeeke beste guztiak bezalako bizimodua eramán behar dute eta hau guztia gartzela eta bidaiekin lotu behar duzu. Eskola eta lana utzi egun batzuetan. Umeentzat gogorra izan da, batez ere horrenbeste km. egitea aitarekin ordu bat besterik egoten utz diezaieten. Baina beti egin diogu aurre guztiari eta maitasunez beteriko familia osatzen dugu, oso lotura haundia daukagu bostok; maitasuna eta sentimendua dagoen tokian...

Gaur egun, beste edozein bezala bizi dira seme-alabak; 16, 19 eta 23 urte dituzte eta bizitza aurrera eramán dute.

- Legeak dioenez duela 3 urte etxean egon beharko zen, nola bizi duzue egoera hau?

- Gizatasun falta izugarria ikusten dut. Senarra preso, lantegian 8 orduko lana, seme-alabak hazi, etxea eta familia aurrera atera... Mundu honetan ez dago hitzik zein gogorra den adierazteko.

Joxeanek ere, une gogorak pasa izan ditu kartzelan eta oraindik ere hor dago, seme alabekin eta emaztearikin izugarrizko kontaktu falta, gurasoak ere espetxean zegoela galdu zituen eta baita beste senide baztuk ere. Behin eta berriro esan, azken 3 urte honetako krudeltasuna eta une jasangaitz hau tortura bat dela, psikologikoa, preso eta familia gehiago zigortzeko beste bide bat.

Familiakook erre-zago pasa ditzakegu egunak, seme alabak eskolan edo lanean eta ni lanean, baina galdetu dieziotela berari 17 urte lau pareta esturren artean, zer den, eta inoiz heldu ez askatasun egun hori

P.P: Euskal gizarteak eskatzen du Euskal Presoak Euskal Herriratztea.

Bai gizarteak hona ekartzea beraien

eskubidea dela esaten du baina ez dituzte ekartzen. Bera Euskal Herriko espetxe baten zegoen eta Burgosera eraman zuten.

Parlamentuan ere onartuta dago baina ez dute ezer egiten, pertsonalki ezinezkoa egiten zait ulertzea ia hori zergatik ez doan aurrera

P.P: Lege Biltzarra eta udaletxearen aldetik inongo laguntzarik jaso al duzue?

Ez, ezer ez. Egin duten bakarra izan da, firma bilketaren bat egin zenean, sindura horiek jaso, Lege Biltzarrera bidali eta kitto, gero erantzun bat bera ere eman ez.

Lege Biltzarrak nahi dituen erantzunak ematen ditu: ez daudela preso politikorik, gauza



Joxeanen emaztea eta bere semealabak

horiek "instituciones penitenciarias" delakoaren gauza dela... Nik erantzungo nioke horri, gatazka politikoa bat dagoenean, preso hauek politikoa izan behar dela.

Udaletxeak beti eskuak garbitu izan ditu, nahiz eta kasua herritar batena izan. Joan izan gara udal-etxera familientzako laguntza

ekonomikoa eskatzera eta mila oztopo jarri dizkigute. Han egon behar zen diru bat, beharra duten herritarrei laguntza emateko eta hemen bakarrik batzuei laguntzen zaie, ez herritar guztiei.

Alkateak ez du ezta gizatasunez ere galdetu Joxeanegatik. Inoiz ez dugu jaso laguntzarik edota hau behar dugun galdetu eta udal-etxera joan garenean presoengatik

laguntza eskatzen, beti mila oztopo jarri dizkigute. Guk ez dugu nahi inolako enfrentamentura hel-tzea baina udaletxea herritar guztiak laguntzeko baldin badago... non dago gureganako begirune hori?

P.P: Bukatzeko zer eskatuko zenioke Euskal gizarteari eta Soraluzeko herriari?

Joxean herriko semea dela eta jendeak erreflexionatu dezala nola dagoen politikoki Euskal Herria eta batzuk

bakarrik ez dugula ordaindu behar. Jakin dezatela dispersioa legez kanpo dagoela eta Euskal Herrian egon behar direla. Joxean etxean egon beharko zela orain dela 3 urte eta **ETXEAN NAHI DUGULA, ETXEAN NAHI DITUGULA!**

BATZOKI TABERNA

Kalketburuen 26

Tlf: 75-112112

SORLAUZEZE

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

AUTOPISTA

Pil-Pileaneko azken aleetan Eibar-Gasteiz autopistari buruz egon den eztabaida dela eta, informazio piskat jasotzeko asmotan jo dugu kalera. Hemen, gaztetxean ba omen dagoela gai honen inguruan lan egiten duen talde bat jakin dugu, eta bertara jo dugu beraien iritzia jasotzeko asmotan.

Talde honek dioenez, bere sorrerako arrazoiak proiektu honek gure bailaran duen eragina eta beraren inguruan ematen den informazio izkutaketa dira. Guk, hau entzutean ea zergatik desinformazioa eta izkutaketarena galdetzen diegu, egun hauetan gai hau asko agertzen baita komunikabideetan. "Proiektu hau 20 urte baino gehixau dabil bueltaka eta oin gutxirarte ez da ezer entzun" diote, "gainera herrixari ez dotse ezer esan, eta horren adierazgarri da, udaletxera informaziño eske jua eta beste herri batetik lortu bihar izan doula" gaineratu dute. Beraiek esan digutenez, proiektuaren aurkezpena eta alegazio epea iazko abuztuan izan zen "justu inor ez zeuanian herrixan".

Proiektu honetan aurreikusten denez, Soraluzeke zatian bi tunel daude; bata Eitza azpitik eta bestea Sagar-Errekatik Bergararako Basalگو auzora. Baita zenbait zubi (4 Maltzagan, 1 Embalajes Ansola-ren gainetik eta beste bat Sagar-Erreka gainetik).

Talde honek dioenez, tunelek ez dute ezer konpontzen, estetikoki bakarrik dira eraginkorrak; gainerantzean oso arriskutsuak dira uraren berezko bideak ixten baitituzte, uholde arriskua gehituz.

Eta gainera, berauetatik ateratako hondakinez desegiteko eskonbrerak egin beharko lirateke. Autopistak 100.000.000.000-ko aurrekontua duela jakinda beraiek diotenez "diru hori ezin dabe lortu, eta lortzekotan A-8-a luzatzia da bide bakarra"

Beraz, gazte talde honek guztiz zentzugabe eta suntsitzaitzat jotzen du proiektu hau. "Gure bailara oso estu eta aldapatsua da eta honek autopista baten eraikuntzak berez eragiten dittuan kaltiak haunditu eitten ditu".

Zeharbideak egonda herri guztietan eta beraiek diotenez bailarako trafiko guztia barnekoa izanik zentzuzkoena litzateke, egungo bidea hobetzeko neurriak hartzea eta ez gehiago.


"Kontutan hartzekua da bebai halako infraestruturak haundixek ez dabela berez garapen ekonomikorik ekartzen, beste batzuek diñuenan kontra. Adibide garbixa dou Laudioko kasua".

Bukatzeke, aipatu beharra dugu talde honek ez duela gai hau bere lan bakartzat. Herrian bertan beste proiektu baten berri eman digute, mendi gainean egin asmo duten parke eoliko bati buruzkoa.

Talde honek Soraluzeke guztiak animatzen ditu hainbat proiekturen aurrean duten ar-

dura dela eta, eta asteartero 20:30-etan biltzen direla jakinarazten dute.

AMALURRA DEFENDA DEZAGUN!



SORALUZETAR GAZTEDIA

MEDIKU OTORRINOLARINGOLOGOA

Dr. Igartua

- * EZTARRIA
- * SUDURRA
- * ENTZUMENA
- * BERTIGOAK

Partikularrak gain, aseguru konpainia guztietako bezeroak atenditzen ditugu.

Barrenkale 35 - 1. - ezkerre
Tel. 943 767091
BERGARA

DROGEN MUNDU MIRESGARRIA

1-SARRERA

Gizarte eta kultura orotako momentu historiko guztietan, nolabaiteko partaidetza orokorra izan dute "droga" izenaz ezagututako produktuek.

Kasu batzuetan, anekdotikoki beste batzuetan, kulturen baneratuak, momentu batzuetan zerbait arraroa bezala, besteetan familiari loturik eta hainbat tokitan bere maiztasun eta intentsitateak krisi batetaz hitzegitera eramnez. Beste batzuetan aldiz, bizitzaren beste kapitulo onuragarri bat bailitzan.

Eragin ezberdinez eta ideologia ezberdinetan drogen presentzia beti aipagarria izan da.

2-DROGEN BILAKAERA

Gaur eguneko drogomenpekotasun egoera aztertzeko gure lurraldeko ibilbide historikoari so egin behar zaio; kontsumo eboluzioa, giza jarrera eta bere kontrolaren erantzun posibleak azkenengo hiru hamarkadetan zehar. 60-70 hamarkadei dagokienez Espainiar gizartean ohiko kontsumo bezala tabakoa eta alkohola azpimarra daitezke, modu batean normalizaturik daude populazioak onartzen baititu eta pertsona arteko giza erlaziotan osagai garrantzitsu dira, batez ere famili inguruan arazorik gabe onartzen direlarik.

1965 urtetik aurrera, populazio gutxiengo batzuetan marihuana, hachis, LSD eta anfetaminen kontsumoa agertuko da. Honen ondorioz nolabaiteko egoneza sortuko da gizartearengan.

80. hamarkadan; egoneza heroinaren ingurutik datorkigu, bere erabilpena delikuentzia eta segurtasun

ezarekinlotzen baita, beranduago ihesarekin. Guzti honen ondorioz, hiritarrek manifestaldiak burutuko dituzte.

90. hamarkadan, kontsumoaren normalizazio soziala emango da, alde batera utzirik kontsumo marjinala, ohiko bizitza drogekin harremanduko delarik.

Bestalde droga berrien agerpena nabari da, droga sintetikoak eta eko-drogak. Orokorrean, terminu absolututan, alkoholaren kontsumoa murriztuko da, hala ere, gazteen artean alkoholaren kontsumoaren hazkunde bat ematen den arren. Gaur egun, etnofarmakologia bezalako zientziak sortu dira, substantzia enteogenoen ikerkuntza aurrera eramanez. Eta ikerkuntza ugari egiten ari da, kontzientzia moldatzen duten substntzien inguruan, antropologo, etnobotaniko, biologo eta abarren esku, batez ere debekua jaso ez duten herrialde agrarioetan.



GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 751241

SORALUZE

4-MARIHUANAREN EFEKTU POSITIBOAK

Adibidetzat marihuanaren kasua hartuko dugu; marihuana hainbat gaixotasunentzat soluzio batarra da, nahiz eta egun blokeo legal bat jasan. Gaixotasun hauen artean:

★ **Estresa:** Egungo bizitzak gizarteak egin ahal duena baino gehiago eskatzen du. Kañamoa elikagai egokia izan daiteke gure ispirituentzat. Landare honen keak lasaitasun inguru bat sor dakiguke.

★ **Lo eza:** Lo egiteko garaian arazoak dituen pertsonentzat kanabisak logurearen erreinuan barneratzea ondoriozta dezake.

★ **Kantzerra:** Kimioterapia tratamendua hartzen duten pertsonentzat lagungarriak dira marihuanaren aplikazioak. Kimioterapiak sortzen dituen bigarren mailako eraginenentzat soluziobide baita. Marihuanaren erabilpenaren erantzun positiboak esparru honetan ager daitezke.

★ **Ihesa:** Gaixotasun honen eraginak lasaitzeko onuragarria da.

★ **Esklerosismultiple:** Koordinazio eza duten pertsonentzat ere lasaigarritzat erabil daiteke. Erabilpena bakoitzaren aukerakoa izanik eratzun positiboak dakartza, hauen artean logure errazten du, urduritasuna baretu eta koordinazioa berreskuratu.

★ **Migraña:** XIX. mendean, kañamoa erabiltzen zen burukominaren sintoma baretzeko, nahiz eta XX. mendean ez egon literaturarik honen inguruan.
Iturria: **Kañamo**, La revista cultural de cannabis.

5-LEGALIZAZIOA?

Justizia kontzeptu unibertsala bada eta legeak hau administratzen saiatzen badira, ulergarria ahal da ardo botela bat edo aragia Iranen saltzea legezkoa ez izatea? Edo eta Austria eta Frantzia porro bat erretzea ilegala izatea eta Espainian, Italia edo Holandan ez?

Drogak orohar sustantzia arriskutsuak dira osoasunarentzat hala ere, hainbat jarrera ere, halanola, jokoa boxeoa, autoak gidatzeko hainbat era... hainbat arazo pertsonal, laboral eta sozial dakartzate. Baina, batzuk legez kontrakoak dira eta besteak ez, denbora eta tokiaren arabera izanik.

Arazoa, gehiegizko kontsumoan eta informazio inperfektuan datza. Galeno edo Hipocrates-ek esan zuten bezala **ez da pozoinik esistitzen dosisa baizik**, ondorioz sustantzia edo jarrera batek efektu ezkorrak ondorengo aldagaiak lirateke: kantitatea, momentua eta maiztasuna.

Hau dela eta bi posibilitate aurki ditzakegu; guztiaren debekapena edo dena legalizatzea. Debekatzek berarekin batera merkatu beltza, mafia eta kontsumitzaileen marjinalizazioa ekarriko lituzke, eskari haundiko produktuak baitira. Legalizazioak berriz, ikerketa, informazio egokia eta hezkuntza beharko ditu.



YON IÑARRA

HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S. A.
TORNILLERIA ESTAMPADA

ERREKALDE 21
Telef. (943) 751600 eta 751604
Faxa (943) 752461

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

ARGARATE: ORAINDIK ERE SASOIKO

Gaur egun, beraien kirolean punta-puntan dabilen kiro-lari gazte asko ditugu herrian, baina ezin ahaztu Soraluzek beste garai batean eman zituen figurak. Hala, oraingo honetan 72 urte dituen Celestino Argarate pelotari ohiarengana jo dugu.

1- Ze denboratan jokatu zenuen pilotan?

Jokatu jokatu bizi guztian baina denbora onenak 45-60 urteen artean gutxi gora behera.

2- Zure denboran non jokatzan zenuen pilotan?

Gehixenbat kontsejupian ibiltzen ginan, bazkalostian tailarrera juan baino lehenau zenbat izardi bota ete down guk han. Gero, Sesman be asko eta baitxa eliza ondoko frontoian be.

3- Irabazi duzun txapelketa garrantzitsuren bat?

“Cuenca del Deba” Maiztegi eta bixok.

4- Pelotan jokatzan zenuenean zeintzuk ziran profesionale-tako figurak?

Asko, Atano III-na goitik behera, Etxabetarrak, Gallastegi, Ubi-

llatarrak, Atano beste anaiak, Arriaran, Bolinaga, Zurdo de Mon-dragon... Danak aitzatzeko segi ta segi ein bihar.

5- Ta esan dituzun horiek gaur egungo Beloki, Retegi, Titi eta abarrekin konparatuta zer moduzkoak ziren?



Argarate, ezkerretik bigarrena, irabazitako kopa batekin

Denbora batian alkartu ez dian pelotarixak konparatzia ez da erreza, ta pelotak, jokua ta dana zela aldatu dan ikusitxa ondiok zailagoa. Baina nere ustez, Retegi kendu ezker, gaurkoak baino hobeto jokatzan eben lehengo Arriaran, Atano, Gallastegi, Borinaga eta abarrek. Retegikin “alto”, hori gaur egunian be onena da ta duda barik. Bera, “zien por zien”, besteak “otxenta”.

6- Pelotari ona izatia nahi dabenari ze aholku emoten dotxazu?

Zaila da. Ein bihar dan lehengo gauzia da ondo zaindu. Horretarako juerga gutxi ein ta bizio gutxi euki bihar dia. Ta jan, harripatzen dan guztia. Berez be, gogortasun espezial bat euki bihar da ta eskuekin suertia. Ezker asko ezagutu ezagutu ditxut ezker ederrakin baina eskumia txisa eitxeko.

7- Asko aldatu al da pelotia azken urteetan?

Bai, bai. Argi dao gaur egungo pelotia lehengo denborakuan oso desberdina dala. Materixal aldetik, lehengo pelotak motelauak eta zakarrak. Horregaitxik askoz joku politxaua ikusten zan, aurreko kuadruetan eitxen zian jugadaz beteta. Oin-guek jo ta jo, errebotera heltzen saiatzen

dira, gehixenbat peloten ezaugarri-xengatik.

Diru asuntuan be asko aldatu da gauzia. Telebisiñuak, publizidiak honek eta bestiak diru asko ekarri dau enpresetara, Titinekin entzun dian miloi guztieri begiratzia besterik ez dau. Ta afiziñua be lehen askoz handixaua zan, danak jokatzeko amorratzen. Mezetarako astirik pez, frontoian txandia hartu nahi baziñuan. Ta hori, abarketak karuak ziala ta, danok hanketan babak zitxugula.

8- Eskuetatik ze moduz ibiltzen zinan?

Pelota zakarrak zian da mina askotan. Esparatrapua ta ipinitxa, oinguak baino gutxiau, arreglatzen ginan.


egoten zan, ta honen inguruan foiloiren bat bebai. Neuk pe ein dot bat edo beste. Gogoan daukat behin, Bitorixan, beste pelotari batek eta neuk "kara eta kruz"-ian bota genduan zeinek ein.

10- Dirurik irabazten zan pelotan eitxen?

jokatzerakuan, Bitorixan adibidez, trena, jana ta dana pagatzeko bapoltzikotik ipini bihar behin edo behin.

11- Pelota ez dan ze kirol duzu gustukoen?

Futbola gustatzen jata.



1950.urtean Argaratek eta Maiztegi irazabazitako txapelketan

9- Tongoak ezagutu ditzuzu? Ta ein?

Denbora baten tongo asko

Partiduak hemen inguruan jokatuta zeoze irabazten zan, lehengo hogeituro. Baina kanpoan

12- Kontrarixo gogorrena?

Danak. Maiztegi oso gogorra zala akordatzen naiz.

13- Anekdotarik.

Gogoan dot zela behin Sesma frontoian desafio bat jokatzen neuala, Dei Sesma, frontoiko jueza zanak, laguntzeko asmoakin pelotia aldatzeko esaten zoztan. Nik neriakin segiduan neban eta baitxa partidua irabazi be. Hortxe enteratzen nok nere kontra zazpi duro jotatuta zitxuala.

AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tlfnoa: 753102

SORALUZE

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaizaileak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

AZKEN URRATSA

Maiatzaren 10ean Soraluze-ko kirol bazkunak antolatutako lehenengo txirrindularitza saria ospatu zen. Parte hartu zuten txirrindulari guztien adina 23 urtetik beherakoa izan zen.

Lasterketa honek 115 kilometro zituen eta besteak beste, txirrindulariek, Kanpazar, Asensio eta Areitioko mendentak burutu behar izan zituzten. Ikus daitekeenez, ibilbidea nahiko gogorra zen eta irteeran 178 txirrindularik parte hartu zuten arren, 78 txirrindularik bakarrik lortu zuten froga hau amaitzea.

Egun horretan, Soraluze bizi izandako giroa ezinhobea izan zen eta gainera, gezurra badirudi ere, eguraldiak asko lagundu zuen.

Antolatzaileen esanetan, lasterketa honek garrantzi handia du, gazteen artean froga honek txirrindularitzarekiko interes handiagoa sortuko baitu.

Lasterketa hau ospatzen zela aprobetxatuz, Soraluze kirol bazkunak hainbat urtetan afizionatu

mailan ibilitako Bittor Goenaga herriko txirrindularia omendu zuen. Dударик gabe, merezitako omenaldia izan zen, Bittorrek maila honetan lortutako emaitzak oso onak izan baitira eta esan daiteke zorte txarrak bakarrik utzi duela profesionaletera pasatzeko atarian.



Soraluzeko Kirol Bazkunak Bittor omendu zuen.

Bittorrek gaur egun txirrindularitza utzita dauka, baina Bittorren pausoak jarraitu nahian, badira Soraluze oso ondo dabiltzan hainbat txirrindulari eta gainera emaitza oso onak lortzen ari direnak; besteak beste, Ion Oregi, Oier Oregi, Zigor Alberdi eta Iosu Mantxa. Garbi dago, txirrindulari hauekin eta antolatzen diren era honetako frogekin, Soraluze gero eta txirrindulari gehiago emango dituela.

SAILKAPENAK:**OROKORRA:**

1. Ruben Fernandez.....2:57:08
2. Oskar Melero.....2:57:11
3. Patxi Ugarte.....d.b.
4. Rikardo Serrano.....d.b.
5. Ion Agirrebeitia.....d.b.

MENDIA:

1. Ruben Fernandez.

TALDEKA:

1. A.C.R.
2. Banesto.
3. Kaiku.

ZORIONAK
ANTOLATZAILEEI !!!



aras S.A.L

TORLOJUTEGI DEKOLETATUA
ALTZAIRU ETA METALEZKO PIEZAK
TORLOJUTEGIA S/ DIN ARRAK
ZEHAZTASUN HANDIKO TORLOJUA

Telefonoak: (943) 751736 eta 751803
Faxa: (943) 752295
20590, SORALUZE (Gipuzkoa)

Industrialdea, 20 21
50 Postakutxatila

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE

ETORKIZUNERAKO GILTZA

Soraluzen, indartzen ari den beste kirol bat judoa da, Juan Ramon Del Barrio entrenatzailearen eskutik azken aldian lortzen ari diren emaitzak oso pozgarriak baitira. Entrenatzeko tokia Ezoziko parke azpiko lokal baten dute eta saioak astean birritan egiten dituzte, astearte eta ostegunetan, 6'30-etatik aurrera hain zuzen ere. Ikasleak bi mailatan banaturik daude, 5-13 urte bitartekoak (16 judokarekin) eta 14 urtetik gorakoak (7 ikaslerekin).



Juan Ramon eta bere ikasleak.

kitzea da. Hala, duela pare bat aste bere bi ikaslek Portugalen egin zuten "Stage" baten, brontzezko bi medaila irabazi zituzten (alebin eta infantil mailetan). Orain dela 10 egun Andorran jokatu zen Nazioarteko

Txapelketan ere, emaitz oso onak lortu ziren, brontzezko hiru medaila eta urrezko bat irabaziz. Azkenik, eta etorkizunari begiratu, Uztailan 3-4 ikasle Ibizan egongo den beste "Stage" batera doazela diosku.

Pil-Pilean aldizkaritik zorionak eta zorterik onena opa dizkiegu.

Juan Ramonek dioskunez, kirol hau praktikatzeko ezinbestekoa den ezaugarri bakarra gogoia eu-



Erretegi
Jatetxea
ESOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

**JUAN MARI
ARRAINDEGIA**

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!!

Tfnoa: 752440

SORALUZE

Kontulan Aholkularitza, S.L.
Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 - 1. Ezk.
Tel. (943) 75 17 82

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)



**Hnos. BENITO
ANAIAK**

MUEBLES-ALTZARIAK

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Juan Mari: dedikazioa eta gogoaren indarra

Juan Mari Oregik futboleko lehendakaritza utzi zuenetik, buru belarri sartu da txirrindularitzako munduan. Elgoibarko txirrindulari taldean bere lanak izan arren, aipatzekoa da bera izan dela besteak beste Igo SORALUZE SARIA antolatatu duen zutabe garrantzitsuenetariko bat. Jendeak gai honi buruz jakin ez arren, horrelako laisterketa bat antolatzeak zailtasun ugari eta hilebete askotako lana dauka. Bere eritziak jakitzeko asmoz beragana jo genuen.

1- Noiztik afizio hau?

Betidanik kirol guztietan eduki izan dut afizioa, batez ere txirrindularitzan.

2- Nola ikusten duzu Soraluze kirol mailan?

Bizirik ikusten dut, kirolrik gogorrenak (futbola, pelota, txirrindularitza) momentu hauetan emaitza onak ematen ari dira, baina aipatzekoa da gimnasia ritmikoa, karate, judo eta atletismoan ere lortzen ari diren emaitzak.


3- Zerk bultzatu zaitu laisterketa hau antolatzerara?

Gipuzkoako txapelketa antolatu genuenetik, buru belarri hasi ginen laisterketa hau antolatzen, interesgarria iruditu baitzaigun bai kirol mailarako eta bai Soraluze ezagutarazteko ere.

4- Zergatik ez dago Soralu-

zen txirrindulari talde bat?

Herri mailan, Bergara, Eibar, Ermua, Elgoibar eta beste hainbat badaukate beren taldea. Talde bat aurrera eramatea ez da erreza dedikazioa, lan egiteko jendea eta horrez gain mantentzeko dirua behar da. Soraluzen, nahiz eta afizioa



Juan Mari Oregi, gaur egun

igotzen joan, oraindik jende gutxi dago talde bat sortzeko.

5- Soraluzen, zeintzuk izan dira eredu gisa hartu daitezkeen txirrindulariak?

Adrian Diezen denboretatik, Bittor etorri arte ez da postu inportanterik lortu txirrindularitzan, berak sortu du dagoen afizioa.

6- SAN ANDRES SARIA ez al zen nahikoa?

San Andres sarian jende onak lortu du garaipena, Poblet, Peru-

rena, Nazabal, Lazpiur, Osa eta Mujika besteak beste. Laisterketa oso garrantzitsua da baina data ez da oso ona eta nahi izan dena laisterketa honekin Soraluze bizitasun piska bat ematea izan da.

7- Txirrindularitzan entxufeak al daude?

Gai honetaz ez dut asko ezagutzen baina nire ustetan entxufeak badaude, erlazioek zerikusia handia daukatelako.

8- Nolakoa da Soraluze jarraera laisterketa antolatzerako orduan?

Ez da erreza laguntasuna lortzea, pelma samarra izan behar da, afizioa badago eta azkenean laguntasuna lortzen da, bestela ezinezkoa izango litzateke horrelako laisterketa bat antolatzea.

9- Txirrindulari gazteen artean garaipenaren heziketa ala beste edukazio bat ematen da?

Lehendabizi eta garrantzizkoena ikasketekin jarraitzea da, hankak lurrean edukitzen jakinez. Eta honekin batera, kirola "hobby" bat moduan hartzea.

10- Zeren beharra dago Soraluzean?

Eskola mailan kirola sartzaren beharra dago, beraien artean kirol erlazio bat sortzeko.

TXINDOKI BI IGOERA LARRAITZ AUZOTIK

Zenbaki honetan, Txindokira igotzeko bi aukera emango ditugu. Honela bada, lehenbizi, Larraitzeko ermitara heltzeko Zaldibiara joango gara eta hemendik Larraitzera igo beharko dugu.

Lehenengo aukera hau, gailurra egiteko bide normala eta gehienok erabiltzen duguna da, Egurral lepotik pasatuz segituan jartzen baikara gailurrean. Bide honek ez du galerarik oso ondo markatuta baitagi. Bestalde, bidean badira pare bat iturri mendian gora tokatzen diren itoaldeitarako.

Bide honetatik igo eta jeistea 5 bat orduan egiten da.

Bigarren aukera, Muitz

Beste aukera bat, berriz, Muitzeko urjauzitik Txindokira igotzea da. Bide hau piska bat gaitzagoa izan arren, politagoa ere bada.

Honela, lehenengo aukeran mendia eskumatik igotzen bazen, bigarren honekin, mendia ezkerretik igotzen da, Muitzeko urjauzitik pasatuz. Esan beharra dago, bidea nahiko hestua eta argi ibiltzekoa dela gutxiago markatuta baitago.

Lehenbizi, Larraitzetik ikusten de errepetidorera joango gara, bide guzti hau pista delarik. Errepetidore hau zeharkatu ostean, Muitzeko "bailara" antzeko batera helduko gara. Bertatik ere joan daiteke Txindokira, baina aldapa oso haundia dago eta esperientzia daukan jendea soilik ibiltzen da handik zehar. Guk, ekialdeko aristara jokko dugu eta bertatik aurrera beti leku errezenetik joango gara, Egurral lepoa alde batera utziz.

Behin gailurrera igo ezkerreko, sekulako ikuskizun zoragarriaz gozatzeko aukera izango da; Ori a bailara, Aizkorri, Gorbea, Udalaiz, Anboto, Ernio, Irunagarrieta e.a. Animo bada!!

Soraluzeko Kirol Bazkuna

ARANE
POLIKIROLDEGIA
75-24-66

EROSLE
Soraluzeko
kontsumo elkarte
Kalebarren

AUTOPISTA BERRIA



Eibar- Gasteiz

Eibar-Gasteiz”, autobide gatazkatsua: Gobernuak onuragarri bezala azaldu digun proiektu honek gatazka ugari sortarazi ditu gizartearengan. Izan ere, askorentzat, autobide honek kalte handia eragiteaz gain, ez ditu abantaila askorik ekarriko. Honen aurrean, gure bailarako hainbat elkartek, zenbait protestaldi antolatu izan dituzte hiruhilabete honetan, soraluzetarrak ere partaide izanik. Honela bada, (**noiz**) Deba Bailarako Gaztetxe Elkarteak, Eibarko autopistako peajearen bi-dea moztu zuten bertara kateatuz eta txikizioaren kontrako pankarta bat ezarriz Ertzantzak desalokatatu zituzten arte. Bestalde, Eguzkik antolatuta, mendi martxa bat burutu zuten Aste Santuan. Be-

rau Soraluzem hasi eta Gatzagan bukatu zelarrik. Mendi martxa honekin, Eibar-Gasteiz autobidea naturaren kontra dihoala salatu nahi izan zuten; era berean, guztira, 5-6 minutu soilik aurreratzeko suposatzen duen diru-gastu izugarria azpimarratu zuten, gogoraziiz beronen finantziazioa ez dagoela batera argi eta “agian A-8 autopistaren peajearen luzapenarekin egingo baita”. Eta nekazarier egiten zaien kaltea ere aipatu zuten, batez ere baserretik bizi direnei.

ION OREGI TXIRRINDULARIA GIPUZKOAKO SELEKZIOAREKIN BRETAINIAN.



Ion Oregi

Ion Oregi Soraluzetarra bere kirol ibilbide ona dela eta, Bretainian korritu zen proba baterako aukeratua izan zen gipuzkoako selekzioarekin. Nazioarteko hainbat txirrindulari biltzen dituen proba honetan, Ionek 15. postua lortu zuen sailkapen orokorrean. Proba hau osatzen zuten bi sailletatik (Erlojuaren aurka eta etapa normala) batean, lehen gipuzkoarra izatea lortu zuen (Erlojuaren aurkakoan).

Ion Bretainian izan ondoren, eta han lorturiko emaitza onak direla medio bigarren aldiz izan da aukeratua beste proba baterako, hau ere Bretainian.

ZORIONAK ION!!

ARITZ LASKURAIN ESPAINIAKO TXAPELDUN ORDE

Soraluzeko Aritz Laskurain pelotaria aurten ere izugarriko denboraldia egiten ari da, honen adierazgarri dugu orain hilebete batzuk Palentziako Iscar herriam jokatutako Espainiako txapelketan lorturiko emaitza. Aritzek Azkoitiko Etxaniz pelotariarekin batera Espainiako txapelkumondte postua lortu zuen.



ZAKARRAK GURE MENDIETAN:



Gure mendiak zikin!

“Askabeitxi” egoera lotsagarrian geratu da, Aste Santuan bertan jende egon ondoren. Kanpindenden zatiak, sukaldeko tresneriak, plastiko eta bestelako zakar ugari utzi zituzten bertan, benetan egoera negargarrian utzi zutelarik. Zakar hauek animalieri egin diezaieketen kaltea oso haundia da, baina ez da hau bakarrik, materiale hauek ez dira berez desegiten denbora askoan bertan jarraitu dezakete bertan inork ez baditu bertatik kentzen.

Beraz, eta honelako kasuak ugariak direla jakinda, mesdez jendeari eskatuko genioke ez dezatela zakarrik utzi mendian eta gorde dezatela behar den to-kira botatzeko.

HIRUKURUTZETAKO ERROMERIA:



Hirukurutzetako erromerixia

Urtero Hirukurutzetan ospatu izan den erromeria aurten eguraldi txarra zela eta “Atxantxaboleta”-ko elkartean ospatu behar izan zen (Etengabeko euriak ez bait zuen beste irtenbiderik utzi). Hala re makina bat jende hurbildu zen ospakizunetara (Elkartea betetzeko haina bai behintzat). Lehenbizi goizeko 12:00-etan meza eman zuen Gandiaga aitak, elizkizuna bukatu ostean Osintxuko trikitilariak alaitu zuten giroa. Salda eta txorixoa banatu zitzairen bertaratu zirenei. Eta besterik gabe bukaera eman zitzaion aurtengo Hirukurutzetako erromeriar, datorren urtean giro eta eguraldi hobez ospatu ahal izateko gogoz.

MENDIAK ZAINDU

DENOK GOZA AHAL DITZAGUN.



ELECTRICIDAD

GANTXEGI

ELEKTRIZITATEA

TODA CLASE DE INSTALACIONES Y REPARACIONES DOMESTICAS E INDUSTRIALES. PORTERO AUTOMATICO ACUMULADORES DE CALOR PARA TARIFA NOCTURNA.

Errekalde, 2 Apdo. 104

TELF.: 75 19 59

SORALUZE

HORTZ KLINIKA

JAVIER ALONSO CELAYETA

Mediku estomatologoa Kol. Zb. 434

JONE BEITIA ARRIOLA

Odontologoa Kol. Zb.523

Atxuri 1, 1goa Esk. Tfnoa:75 16 13

Ipuin lehiaketako partaideak nolakoak ote?

Denok dakigun bezala, gure herrian urtero ipuin lehiaketa burutzen da, bertan guztiok hartu dezakegularik parte. Baina gutxiengoa da bertan aurkezten animatzen dena, batzuk beldurrarengaitik, beste batzuk irudimen faltarengaitik...eskusa ugari beti jirabueltan. Honen aurrean, jakinmin haundia izan dugu jakiteko ea benetan halanolako zerbait berezia behar den idazle edo izateko eta iazko ipuin lehiaketako irabazleengana jo dugu galdera batzurekin. Esozi Arrillagak helduen mailako bigarren saria irabazi zuen "Amonaren opari berezia" izeneko ipuinarekin; lehenengo saria, berriz, ez zuen inork jaso. Gorka Oregik, bestalde, "Ametsak amets" izeneko ipuinarekin 16 eta 18 urte bitartekoen lehenengo saria jaso zuen.

Pil-Pilean: nola egiten da ipuin bat?

Esozi: ba gauza bat pentsatzen da, bestearekin lotzen da eta irtetzen dena.

Gorka: hasi egiten eta irtetzen dena. Nik okurrizten zaidana idazten dut.

PP: norentzat idazten duzue batipat?

E: gehienbat umeentzat idazten dut. Ez dakit, ipuina umeekin gehiago lotzen dudalako edo.

G: nik nire inguruko adinekoentzat. Adin horretan izaten diren arazoengatik inguruan.

PP: idazteko erreztasun bereziren bat al daukazue?

E: lehen bai, gero nahiko den-

bora egon nintzen euskaraz idazteke eta piska bat galdu nuen, baina iaz EGAn egon nintzen eta zerbait irabazi nuen. **G:** nik nahiko erreztasun dau-

daudela eta ondo iruditzen zait herrietan horrelakoak egotea.

G: bai, nik ere denborapasa moduan egiten dut.



Esozi Arrukkaga eta Gorka Oregi

kat idazlanak idazteko.

PP: denborapasa moduan idazten duzue edota bestela?

E: denborapasa moduan, baina pentsatzen dut honelako gauzak euskara bultzatzeko ondo

PP: zer sentitzen da ipuin bat idaztean?

E: bukatuta dagoenean gustatzen zait pentsatzea nik sortu dudana istorio berri bat dela.

G: nik ipuinak idazteko gogoia edukitzen dut noizean behin.

PP: jende asko aurkezten al da herriko lehiaketara?

E: oso gutxi, ezbeharrez.

G: ez. Nire mailan adibidez, iaz bi pertsona soilik aurkeztu ginen.

EDURTZA

KAFETEGIA
SORALUZE

LAKUESTA OPTIKA
 OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
 KARRETEAK SALGAI

SANTA ANA 22C
 Tel. 943 753059

20590 SORALUZE
 (GIPUZKOA)

Zer pentsatzen dugu Soraluzetarrok drogei buruz?



Jon Aspe

21 urte

Okina

Oraingo drogak lehengoak baino txarragoak dira, kalte gehixau eitzen dabe. Legalizau ein biharko zian, batzuk behintzat, horrela kalidade gehixau eukiko zeben



Mikel Baiesteros

21 urte

Tabernaria

Nire ustez drogak legalizau ein biharko zian, jendiak bere gorputzaren nahia dabena ein leike. Drogak lehen naturalaguak zian, oin gero eta txarraguak dira.



Nagore Sanz

23 urte

Ikaslea

Orokorrian drogak ez jataz onak pentsatzen, baina bakoitzak eitxia dauka nahi dabena. Batzuk legalizau bihar zian. Kalian hainbeste darenenez, zergaitik ez?



MªTere Aristi

56 urte

Margolaria

Droga danak kendu biharko zian, alkohola bebai, "ur-freskura" ibili danak. Alkohola be droga zatarra da. Drogak medikamentuak eitxeko eta alkohola janarixari laguntzeko.



Ainhoa S.

20 urte

Ikaslea

Nere ustez drogak txarrak izan arren, legalizatuta egon beharko ziren, nahi duenak hartzeko. Gaur egun, informazio asko dago eta bakoitzak badaki zer egin bere buruarekin.



J.C. Astiazaran

41 urte

Ingenieroa

Drogak ez dia erabiltzen jendiak nahi dabelako bakarrik, honen atzetik negoziua dago. Droga saltzaileei komeni jakue legalizatzia, nahiz eta beti egongo dan norbere kontsumorako lantzen daben jendia.

**JABIÉR
ALBERDI**

HARATEGJA
Erreal kalea 24
tln: 75-19-32
Soraluze



**HEMEN JOAN DAITEKE
ZURE PUBLIZITATEA**

PLAENTXIAKO BERBAK

-HANKALATRABA: Zaldixan edo jarleku batian alde banatara jarriz, eseri jartzeko modua.
Adb. Zu ezin biha dan moduan jarri, beti hankalatraba egon bihar.

-HARPASO: Ibaixan alde batetik bestera juateko zeren harrixak.
Adb. Eskerrak harpasoari, bestela majo bustiko giñake!

-HARRAPATAKA: Presaka eta ordenik gabe.
Adb. Lagunak deitxu dotsanian dana harrapataka bukatu eta ospa ein dau

ESAMOLDIAK

HAIZEKO EGON: Umore oneko egon, parrandarako gogoia euki.
Adb. Ekarri dozun haiziakin golferixarako gertu zare

HANKA JOKO: Antxixiketean igesixari emon
Adib. Sagarrak harrapatzen ibili zian mutikuak a zelakotxe hankajokua eruan zeben kale aldera baserritxarra ikusi zebenian.



Pernando Plaentxiarra! Tabernaria eta bezeroa

-Nik entzunda daukatenez, medikuek esaten ei juek arduak bizitza laburtzen dabela.

-Medikuek arrazoa jaukek. Konturatuta najaok ni edan bariko egunak luziauak diala.



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



“DANA LANBROTUTE IKUSTOT”

Pasa den maiatzaren 15ean, Gaztelupeko Hotsakekoen eskutik “Ikuskizun” bikaina ikusi ahal izan genuen. Ikuskizun honen ardatza Ioseba Sarrionaindiaren “Kiromantzidxa” poema da. Euskal iheslari bati eskuko arrastoak irakurriz iragana eta geroa igarriko dizkio kiromante batek. Aintzane Astigarraga, soraluzetarrak, betetzen du iragarlearen papera, adierazpen eta hitzetan. Hari horri lotzen zaizkio Deabruak Teilatueta taldearen abestiak, Mattin eta Xabi Ubedaren diapositibak eta Koldo Izagirre, Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendiren poemak.

Deabruak Teilatueta taldeari:

ZEIN IZEN JARRI DIOZUE LAN HONI?

Ikuskizuna deitu diogu, poesia, irudia, antzerkia eta musika dagoelako.

NOLA SORTU ZEN IDEIA HAU?

Pasa den Abenduan, Durangoko azokan ezagutu genituen Otamendi eta Aranbarri eta han hasi ginen ideia garatzen. Lehenengo ideia zena eta orain daukaguna oso ezberdinak dira. Elementuak biltzen joan gara bost hilabetetan, azken biak eman ditugu montajea nahiko serio egiten.



Deabruak Teilatueta taldeak jarri zion musika ikuskizunari

BESTELAKO LANEN BATEN OINARRITU ZARETE?

Ez, suposatzen dut egongo direla horrelakoak, baina gu ez gara hoietan oinarritu.

“ Sentimentuak pertsona batengan oinarrituta daude, baina oso erraz bideragarriak izan daitezke beste edonorengan.”

DANA LANBROTUTA IKUSTEN DA?

Guk jada dana oso argi ikusten dugu, bukaran hori erakutsi nahi dugu. Sentimenduak pertsona batengan oinarrituta daude, baina oso erraz bideragarriak izan daitezke beste edonorengan.

Aintzane Astigarragari:

NOLA AGERTU DA AINTZANE ASTIGARRAGA ESZENATOKI BATEN GAINEAN OLERKIAK ERREZITATZEN?

Ba, larunbat goiz baten klasetik nentorrela Bergararik joan nintzen Gaztelupera menta bat hartzera, eseri nintzen mahai bazter baten eta orduan etorri zitzaidan Ubane eta esan zidan: "Aintzane, zuk egiteko zerbait daukat Koldo Izagirrekin, beste bi poetekin, Deabruak Teilatuetan taldearekin..." Beno baina nik zer egin behar dut?, galdetu nion. "Ba Sarrionaindiraren bertso bat errezitatuko duzu" esan zidan. Eta orduan esan nion, bai!!! Hola hasi nintzen, eman zidaten testoa eta hortik aurrera nire kontura prestatu dut.

PAPER HAU EGITEKO, LUZAROAN ENSAIATU DUZU?

Egin nuen lehenengo gauza, testoari itxura ematea izan zen, komak, puntuak etabarrak jarri, gero doinua eman nion.



Aintzane oso ondo aritu zen emanaldian.

DANA LANBROTUTE IKUSTOT

Ekarrixu eskumako eskue,
amen ñok estotzu ainke ingo
ta.
Onutzatxuau, baina ikumille
ees!
Sabaldu eskue ta lusetu atzama-
rrok...
Es billurtu,
Beittu eingu zure biximorue...
Aber...
Arradxak ondo markaute, deko-
sus!
Ensegida esangotzut,
Dana lanbrotute ikustot paña...
Estakipa, estakipa...
Au etxate bape gustetan, eee!

Or tiro artien saus
Itzelesko miñekin ikusten saitut
Ortxe, urrin orretan...

Gustau bapez ta bestior kartze-
lako auluen esasus ba!!!
Setan sabiz ba gixajuori??
Maittasune danak urriñek!
Soridxonak danak laburrek!
Lagunek, asko ta asko ildde joo-
saus...
Beti bursbera saus ta.
ser ein eteosu ba orrenbeste sufri-
karisxo ereitteko!
Ta errematerako, datosen egunek
pe gerau ta txarrauek!
ligerri esin dduana da aegatik!

Apur bat alperra sara baña sent-
zundune, sintzue,
lentie maitte saittu baña larrei
sufridu bikosu
Arrasoi sakonen bat dekosu suk-
nunun
baña esineke igerri seiñ ddan!

Elene: "Lagunik eta maitasunik gabeko zingor nintzake bizi..."

Oraingo honetan Pil pilean aldizkariko lankide dugun Elene Alberdiri egokitu zaio sutondoaren epelean goxo goxo eseri eta bere bizitzaren nondik norakoak jakitera ematea. Zenbait galderatan ezustean harripatu nahi izan dugun arren zaila izan zaigu 22 urteko gazte hau estutzea. Bestela irakurri zer nolako erantzunak eman dizkigun.

-Kontaguz zer egiten ari zaren momentu honetan...

Kazetaritzako 5.maila egiten, azken urtean, Pil pilean aldizkarian, ETBko Bertatik Bertara saioan bekadun gisa, Arrasate telebistan munduari buelta saioa aurkezten eta Arrasate irratan kolaboratzaile gisa lanean.

-Zer nahiago duzu, irratia, telebista ala kazetaritza idatzia?

Irratia edo telebista biak gustatzen zaizkit, idazteari dagokionez, hauetan bietan dago idatzi beharra. Hori bai, telebistan kamara atzeko lanak egitea nahiago dut: erreportaiak elkarrizketak...



Elene Alberdi, irribarre ezagun bat!

-Nolakoak izaten dira frogak?

Laugarren maila bukatzean 60 bat lagun aurkezten dira frogetara eta horietatik 15 inguru hartzen dituzte lan ezberdinetarako: ni erredakziorako hartu ninduten. Lehenengo

test bat egin zuten kultura maila neurtzeko eta gero banan bana kamara aurrean gure burua euskeraz eta ingelesez aurkeztu eta gai bat garatu behar izan genuen.

-Zer sentitzen da kamara baten aurrean?

Hasieran urduritasuna gero askotan grabatzen duzunez lasaitasun handiagoa, ohitu egiten zara, txarrena ez da kamara, txarrena jende mordo bat begira egotea da.

-Zer suposatzen du ETBk zure bizitzan?

Esperientzia positiboa, telebista barrutik nolako den ezagutzeaz gain jende asko ezagutu dut.

-Errubia begi berdeduna izateak zabaldu al dizu inoiz aterik?

Hori tontakeria da, oraindik ez zait aterik zabaldu eta.

--Ba al duzu proiekturik?

Momentuz karrera bukatzea eta Arrasaten jarraitzea.

-Nola ikusten duzu Pil pilean aldizkaria?

Jende asko dago lanerako gogoakin. Dugun azpiegitura minimoarekin ez dakit nola jarraitzen duen irtetzen. Benetan lan txalogarria!

-Bitxikeriaren bat kontatzeko?

Eibarko merkadiloan nengoen, bertan asteazken goizetan egoten den giroa grabatu eta elkarrizketak egiten. Bapatean lore saltzaile batek loreak oparitu zizkidan... bere loreen propaganda egiteko erabili ninduen...

ISILEAN

***Mania bat**

Denbora guztian ordua begiratzea.

***Esan dizuten lore bat...**

Ezpain politikak nituela eta ikutu egin zizkidaten.

***Lotsarazten zaituen zerbait...**

Autobusean sartzea oso egoera ezesoraa iruditzen zait.

***Asko haserretzen zaituen zerbait.**

Autobusean jarlekuak zenbatuta daudela eta leku batetik bestera mugiarazten zaituztenak nere onetik ateratzen naute.

***Bakarrik egotea...**

Auketan nahiago lagun onekin

***Inoiz egin eta egingo ez duzun zerbait.**

Parakaidas batetik nere burua botatzea. Hala ere ezin dut esan egingo ez dudunik...

***Zerik gabe ezingo zinateke bizi...**

Maitasun eta lagunik gabe

***Gehien atsegin duzuna**

Gustura nagoen jendearekin egotea

***Zein da zure bizitzako ametsa?**

Denboraldi bat kanpoan egotea

***Eduki duzun azkenengo tentazioa**

Eiii! hori ez da esaten...!!

***Eleneren agenda estuan printze urdinentzat lekurik bai?**

Leku asko asko dago, baina momentuz printzerik ez.

***Eleneren bihotzeko atea zabalduko bagenu zerekin egingo genuke topo?**

Uff...!! oso oso ate handia zabaldu behar da bihotz handi handia daukat eta...ja ja ja...

***Elene izeneko koktel batek ze osagai eduki beharko lituzke?**

Koktel sinple bat izango litzateke, lasaia nahasketa askorik gabeko, ajerik uzten ez duten horietakoa.



GRETELUPE
TABERNA

Telefonoa: 752081

Sagar Erreka, 27
Apdo. correos 69
Tel. 943 / 75 17 79

20590 SORALUZE

TERE SOUSA

Oraingo honetan, Tere Sousa, Pedagogian Lizentziatua den 25 urtetako plentxitarra etorri zaigu bere sukaldaritza-rako zaletasun aparta erakustera. Sukaldaria ez izan arren oso trebea da lapiko artean eta "Galizia erara" gertaturiko olagarro bikaina eskeini zigun Pil Pilean aldizkariko lagunei. Eta esan beharra daukagu goxo-goxoa zegoela.



Hemen dugu Tere olagarroarekin

OLAGARROA GALIZIA ERARA

OSAGAIAK: (4 pertsona)

- Olagarro bat. (2 kg)
- Oliba olio.
- Gatz lodia.
- Piperrauts bizia.

ELABORAZIOA:

Olagarroa oso ondo garbitu beharra dago; buruko tripak, begiak eta ahoa kentzea garrantzitsua da.

Lapiko bat urez betzen da olagarroa estaltzeko beste eta irakiten hasten denean hiru sartu-irten egiten zaizkio olagarroari erro batetik helduz, gero bertan egozten uzten delarik; ordu laurden su bizian eta beste hiru ordu laurden su motelean, xamurra dagoela ikusi arte. Sua itzali eta bertan utziko da olagarroa ordu erdi bar gutxi gora behera.

Ondoren guraizeaz zati txikiak mozten dira eta olagarroa egurrezko ontzi batean serbituko da gainetik gatza, piparrautsa eta olio banan-banan bota eta gero.

On Egin!


LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S. A. L.

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
Tf.: (943) 75 21 50
Faxa.: (943) 75 21 18
SORALUZE

PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA


ARIES:

Osasuna: Borondaterik ez, gogorik ez, dena gaizki dagoelakoan zabilta, depreak jota, baina dena eguraldiagatik izan da. Maiatzeko ilargi betetik aurrera dena zuzenduko da.

Dirua: Lehen pezeta gutxi eta laister eurotan kobratu behar, ederra panorama! Zifra orokorra gero eta beherrago.

Maitasuna: Maitatzen zaitudalako kantatzen dizut zuri, zu zara negu beltzean eguzki epel zuri... "Euri horia" rena gustokoa izatea ere!


TAURUS:

Osasuna: Euskal futbolak lehen mailan faalta duen gisan, zu ere osasunik gabe denboraldi baterako. A ze gola!
Dirua: Lan aukera ugari dugu bolada honetarako. LANGAITIK deituko dizute eta ze txoloa! lan handia eta soldata erdia.

Maitasuna: Egunez bihurtzen gara gu biok bi txoriño... eta gaez ilargian zaudela... ez duzu ondoan ala?


GEMINI:

Osasuna: Zeure alergiak alde batera uzteko leku aldaketa behar duzu. Barnetegiren batera joan zaitez, Nafarrora ahal izanez gero.

Dirua: Bapateko sortea etorriko zaizu, zure izaeraren araberrako soldata, hau da, bikoitza!

bat xahutu eta bestea, ere bai!

Maitasuna: Elkarri begiratuta hasten gera kantari... Baina ispilu aurrean egiteak ez du merezi, txotxoloa!


CANCER:

Osasuna: Hatzazalak jateko grin zatar horri aurre egiteko, berakatzatza hatz guztietan igurtzi; handetan jakina, eskuetan ez dituzu eta.

Dirua: Burtsan lortutako irabazi guztiak, galduko dituzu laister, dena atera ezean! Inbertitu aekide izanez adibidez.

Maitasuna: Mundura ez ginen jaio gu triste bizitzeko... Tristura guztiak hurrengo Pil-Pilean kontaiguzuz, denon artean bana ditzagun bolo-bolo.


LEO:

Osasuna: Ikusmena bapatean lausotuko zaizu, belaunak indarge gelditu eta bihotzak taupadak bizkortu.

Dirua: Ikusmenaren lausotzea faktura berriak ikusteagatik izango da, hobe halere ezikusiarena egitea "Ikusi gabeko..."

Maitasuna: Belaunen indar galtzea eta bihotzaren taupadana "bera" agertuko delako izango da. Ene maite, ene maite, ene maite....


VIRGO:

Osasuna: ordenagailuari itsatsita egun osoan, baina ez al dakizu dependentzia sortzen duela? Eta gainera jolastu besterik egingo bazenu...

Dirua: soldata gora, inflakzioak eutsi, eta zuk zuhur hori?

Maitasuna: Sekulako ta betiko galdu zaitut Kattalin...

Benetan ederra izan eta joatea utzi, zorri gutxi zituen barren!



ITXAROPENA

TABERNA

SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

ARMENDIA JATETxea

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE



LIBRA:

Osasuna: zure estresa osatzeko, itsasondoko paseadak, Plaentxin badakizu "paseo" berrian ibil zaitez, erreka ondoan, bertan kresalak osatuko zaitu eta.

Dirua: ordua duzu euskera ikastaroa ordaintzeko! Urte osoan aekn "musutruk" aritzea ere bada aurpegia izatea!

Maitasuna: Hain zara "hortera", animatu ere ez zaizkizula egiten! Baina zer nahi duzu telefono digitala telefono gisa erabiltzean? Galdu egin duzula! ez dizu deituko.



Eskorpio:

Osasuna: ez zara hainbeste gizendu, ispilua gezurretan dabilkizu edota zure begiek, arazoa ez dago ipurdian, buruan baino!

Dirua: kartera bai gizendu zaizula! baina nondik atera duzu hainbeste diru "kolpe zorrik" ere ez duzu ematen eta?

Maitasuna: zure ezti ttanttuak ikusi nittuenean, erle liluratu bihurtu ninduzun; bertatik edan, zurrupatu nahian betirako itsatsita suertatu eta zure "zanganoa" naukazu. Hori idatzi ondoren bidali ez! Zu bai "zanganoa"!



SAGITARIUS:

Osasuna: gorputz garbiketa behar duzu, kamamila, azeri buztana eta horrelakoak hartu, eta txuleta gutxiago jan.

Dirua: farra gutxiago egin behar zenuke, hor joaten zaizu eta diru guztia. Nola lortu hori? Zatoz Pagobedeinkatura asteburuero eta

paseatu.

Maitasuna: biok ere nahiko bakarti gabiltza aspaldian, elkarri geureak kontatuz gero akabo gure penak! Zatoz, zain izango nauzu trikuharri inguruan!



CAPRICORNIUS:

Osasuna: Indartsu hartuko duzu sasoi hau, ederki etorriko zaizu ikasketetan edote lanean, lan handia eta gogorrari aurre egin beharko diozu eta. Laranja zukua hartu.

Dirua: Oraintxe bai asmatuko zenukeela ki-niela, lastima txapelketa bukatu

den! Txirrindulari "porrekin" ahalegindu.

Maitasuna: Behin esan nizun garai onean ereinez gero uzta ona izaten dela, bada uztailean jasoko duzu benetan ederra, apaindu eta prestatu ordurako.



ACUARIUS:

Osasuna: Lasaitasuna beharko duzu buruko nahaste horri ostikoa emateko. Kanpina hartu eta leku lasai batera joan, ez bakarrik ordea.

Dirua: Espero ez zenuen plus hori hilero irabazteak on egin dio zure kartilari, eh? Aurten oporrak ere izango dituzu.

Maitasuna: Hartu laguna, kanpaina denda eta zoazte Urbasa aldera adibidez, Naturak harremana "naturalagoa" izaten lagunduko dizue eta.



PISCIS:

Osasuna: Belarri, eztarri eta sudur zuloak itxita dituzu aspaldian, otorrinorenera joan eta berba egin ezin duzunez gero, idatzita eraman egoera.

Dirua: Letrak, letrak eta letrak dituzu ordaintzeko, eta afaltzeko era letra zopa, Ma-

faldaren patua duzu.

Maitasuna: Maitasuna, sexua, maitasuna ... filosofatzen jarraitzen baduzu ez bata eta ez bestea, biak lotuta seguruen!



ZORIONEKO AZTERKETAK!!

Heldu da azkenean denok hain ondo ezagutzen dugun azterketa garaia .Azterketek erabakiko dute uda gustura pasa ala ikasten pasatu behar dugun.

Gaurko honetan hamabi urteko gaztetxoengana hurbildu gara beraien iritzia ezagutzeko asmoz.

•Ze iruditzen zaizkizue azterketak?

• Sara Peñalba,

“Ez dare oso ondo igual piskat juanda zare edo egun txarra euki leikezu eta nota horrekin gelditzen zara.Batzutan memorixia juten jatzu...”

•Unai Txurruka

“Iruditzen jataz batzuetan ondo eta beste batzuetan gaizki, ze igual nerbioso jartzen zara , penkau eitzen dozu eta amak eta aitak kristolako bronkia botatzen dotsue eta asteburua etxian...”

•Ander Elizburu:

“Nahiko ondo iruditzen jataz, holan behintzat badakigu noraino heltzen garan eta gainera ondo ateratzen badozu jendiak zoriondu eta eitzen zaitxu.

•Andrea Olaizola:

Ondo iruditzen jataz hola joaten zara poliki poliki ikasten eta hurrengo handixaua zarenian ba, institutuan eta komeni jatzu holako gauzak eixia.Ondo urtetzen jatzuzenian oso ondo sentitzen zara hori ja badakizulako.”



6.Bko ikasleak

•Astuna al da azkenengo hamabostaldia?

Zigor Soraluze

Bai oso astuna, azterketa guztiak danak batera dialako.Egoten gara denboraldi bat azterketarik barik eta gero danak batera...

•Klasetara gustora etortzen zarete?

Itsasne Elizburu

“Bai astelehenak kenduta

beste egunetan gustora etortzen naiz...”

Andrea Olaizola

“Goizean logura handixa daukagu eta ez daukagu ezebe eitxeko gogorik...”

•Gorka Tardio

“Nere ustez egon bihako zian jai egun gehixao.

•Nola ikusten duzue zuen etorkizun?

Garikoitz Del Barrio

“Arlo batzutan on adidibidez gimnasioan eta beste batzuetan gaizki matematika, ingles...”

Ina Elorza

“Neri ez jata gustatzen ikastia ta auskalo igual basurero baten bezala...edo etxeko enpresan...”

Ion Eriz

“Asko ikasten badou eta azterketa guztiak gaintitzen baditxu- gu handixak garanian,errez topaukou lana...”

Garikoitz Del Barrio

“Arlo batzutan ondo adibidez gimnasioan eta beste batzuetan gaizki matematika, ingles...”



Gazte gara gazte...



Enara Agirre -15 urte

3.B
D.B.H

-Ze iruditzen zaizu irakaskuntza sistema berriaren ondorioz Soraluzen urte gehiago geratu behar izatea?

Neri ez jata oso ondo pentsau,neri gustauko jatan kanpora juatia jende gehixao ezagutzeko.

-Azterketarik egiten al duzue. Ze iruditzen zaizkizu?

Bai eitzen ditzugu. Esan zozkuen hasieran eman bihar zotsela inportantzia gehixao klasekuari eta azterketak ez zebela eukiko inportantziarikan,baina ondiok jarraitzen ditzue eitzen adibidez gaur daukau gizartekua eta hemendik kurtsoa bukatu arte dana azterketak ditzugu.

Azterketak ein biharrean begiratu biharko zeben eguneroko lana.

-Astuna egiten da azkenengo hamabostaldia?

Puf...bai , oso astuna,oporak datoz ia eta klase gogorak eta azterketak besterik ez ditzugu.

-Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Ez dakit, ikasi eingot, eta gero seguruen parora.



Alex Losada- 15 urte

3.B
D.B.H

-Ze iruditzen zaizu irakaskuntza sistema berriaren ondorioz Soraluzen urte gehiago geratu behar izatea?

Askoz hobeto da kanpora irtetzea, hemen ezin da frontoitik atera, debekatuta dago.

-Azterketarik egiten al duzue. Ze iruditzen zaizkizu?

Bai egiten ditugu. Azterketa batzuk zailak izaten dira eta beste batzuk errezak.Neri ondo iruditzen zait azterketak egitea. Egin behar dira.

-Astuna egiten al da azkenengo hamabostaldia?

Bai astuna da ,oporak hartzeko gogua daukat, baina ikasi behar da azkenera arte.

-Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Ez dakit zer egingo dudan oraindik beste urte bat gelditzen zait hemen.Seguraski ikasten jarraituko dut.


SORALUZKO GAZTE GUZTIOI
ZORTE ON AZTERKETETAN!!!

ZEIN DA EMAKUME MISTERIOTSU HAU???



Bidali segiduan erantzuna eta zure gustuko musika entzun dezazun “KD” bat oparituko dizugu!!

Zure izena eta telefonoa.....
Zein da ?.....



JAIOTAKOAK

- Julene Zabala Goenaga (98-02-25)
- Jone Olamusu Gonzalez (98-04-21)
- Andoni Gonzalez Fraile (98-05-01)
- Maria De la Rosa Gisasola (98-05-09)


HILDAKOAK

- Benita Elizburu Arakistain
- M^a Dolores Onaindia Lamariano
- Francisco Muñoz Horrillo
- Francisco Txintxurreta Odriozola
- Dorotea Sanz Garcia
- Angel Alberdi Azkarate
- Vidal Alvarez Alvarez
- Julia Igarzabal Urizar

Aurreko aleko (9.zenbakia)
lehiaketaren irabazlea:

**PEDRO
PRIETO**

izan da



Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskaini dutenak:

Iratxo gozotegia
Moises Altuna Harategia
Karmelo Mendizabal
Zelia Arropa Denda
Mendata Taberna
Begoña Txurruka Urdaitegia
Erlei Arropa Denda

Ibai Ondo Burdindegia
Renault Elkarte Autoak
Marisa Ileapaindegia
Mari Mar Harategia
Santa Ana Kirolak
Soraluze Elektrizitatea
Auresku

AGENDA

AGERIKO VI. MARGO LEHIAKETA Antolatzailea Sorluzeko Udala, Kultura eta Euskara Batzordea

1. Margo lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko izen-ematea Udaletxeko Zinegotzi-Gelan egingo da 1998ko maiatzaren 31an, igandea, goizeko 9etatik 10etara. Une berean, margolariek erabiliko dituzten margo-oihalak seilatuko dira.
2. Izen-ematea irekia izango da nahi duten pertsona guztiak parte har dezaketelarik.
3. Aipaturiko lehiaketak hurrengo bi maila hauek izango ditu:
A maila: Umeak (14 urterarte)
B maila: Helduak (14 urtetik gora)
4. Parte hartzaileek, beren lanak burutzeko beharrezkoak dituzten materiale eta tresna guztiak ekarriko dituzte.
5. Lehiaketaren gaia: Sorluz.
6. Lehiaketa eguerdiko ordubietan amaituko da, Udal Kiroldegiko erakusketa aretoa eraman beharko duelarik artista bakoitzak bere lana.
7. Gai den epaimahai batek aukeratuko ditu lanik onenak Erabakiak eta epaimahaikoen izenak maiatzaren 31an bertan, arratsaldeko 6,30etan, emango dira jakitera eta, jarraian, sari banaketa egingo da Udal Kiroldegiko erakusketa aretoan. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.
8. Hurrengo sari hauek izango dira:
A Mailan:
Lehen saria18.000 pezeta eta trofeoa.
Bigarren saria15.000 pezeta.
Lehendabiziko bietan sartu ez den lehen sorluzetarrari12.000 pezeta eta trofeoa.
Lehendabiziko bietan sartu ez den bigarren sorluzetarrari10.000 pezeta.
B Mailan:
Lehen saria80.000 pezeta.
Bigarren saria50.000 pezeta.
Lehendabiziko bietan sartu ez den lehen sorluzetarrari30.000 pezeta.
Lehendabiziko bietan sartu ez den bigarren sorluzetarrari20.000 pezeta.
9. Maila bietan saritutako lanak Udal honen esku geratuko dira, egokia deritzon erabilera emango dielarik.
10. Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira Udal Kiroldegiko erakusketa aretoan ekainaren 12a bitartean, arratsaldeko 7etatik 9etara astelehenetik ostiralera eta eguerdiko 12etatik 2etara larunbat eta igandeetan.
11. Erakusketa bukatu ondoren, saritu gabeko margolariek hamabost eguneko epea izango dute euren lanak jaso ahal izateko.
12. Epaimahaikoen iritziz lanek ez balute kalitate maila egokirik, ez da sariturik izango.

AGENDA

LIBURUTEGIKO UDAKO ORDUTEGIA

EKAINAREN 29 ETA 30 GOIZEZ 9,30etatik-12,30etara

UZTAILLEAN: 1etik-23ra GOIZEZ 9,30etatik12,30etara

ABUZTUA ITXITA

IRAILA: 1,2,3 eta 4 Goizez

IRAILAREN 7tik aurrera 17,00tik 21,00etara

HAURREN XXVIII. EUSKAL JAIA Soraluzen Ekainaren 7an

EGITARAUA

- 9,30 Herriko txistularien kalejira
- 10,15 Taldeci ongi-etorria eta hamarretakoa.
- 11,30 Kalejira dantzari eta txistulariekin
(Frontoia, Kalebarren, Plaza Zaharra,
Gabolats, Ezoziko Etorbidea, Zubia,
Santa Ana, eta bukatzeko Frontoia)
- 13,30 Haurrak bazkaltzera banatzea.
- 14,00 Txistulari eta arduradunen kalejira-poteoa.
- 17,00 Alardea Plaza Zaharrean:
- Agurra, herri bakoitzeko bikote batek
- Neskak:* Makil txikiakakoa, Kaliak, Zinta Dantza (B).
- Mutilak:* Txankarrako, Jorrai Dantza, Banakua.
- Mixtoak:* Makiltxiki, Eusko Dantza, Askaindarrak.
- Danak:* Txulalai, Fandango eta Arin-Arin.

Bukatzeko: Pottokak.

Egunean zehar: Kale animazioa.

AGENDA

PARRANDAN LUDOTEKA

Ludotekan aurten ere udaleku irekiak antolatu dituzte .Aste osoa izango duzue jolasean eta beste hainbat ekintzetan aritzeko. Udalekuak arratsalde izango dira, 4etatik 7etara. Hona hemen dagokizuen txanda, animatzen bazarete ekainaren 12an bukatzen da izena emateko epea eta gogoratu beste urte-tan ekarri ez duzuenok Osakidetzako kartilla ekarri behar duzuela .

2. eskolaurrea	Ekaina	22-26
3.eskolaurrea	Ekaina /Uztaila	29-3
OHO 1go eta 2.a	Uztaila	6-10
OHO 6. maila	Uztaila	16-17
DBH 1go eta 2.a	Uztaila	20-24

MENDI TALDEA S.K.B. Ekaina

PROIEKZIOAK:

EKAINAREN 15ean: K2 BALTISTAN *Jose Ramon Agirre

EKAINAREN 16an: “Tres grandes en eski de travesia” * Miguel Angel Otxoa

**EKAINAREN 17an: MANASLU (8.163m) “La morada de los dioses”
*Koke Lasa Berasategi**

**EKAINAREN 18an: TRASANDINA 97 Ordua: arratsaldeko 8etan
Baltegi-tako lokaletan.*Txema Sanches eta
Aintzane Egibar.**

EKAINAREN 19an: “Un pais imaginario” * Felipe Uriarte

EKAINAREN 20an: UMEEN FESTA (Rappel , eskalda, tirolina...)

AGENDA

EKAINAREN 21ean: FINALISTA EGUNA (SAN IGNACIO)

Egitaraua:

Goizeko 8,30etan: Txaplugu jaurtiketa

9.00etan: Atxolinera irteera

11,00etan: Meza

12,30etan: Opari banaketa (finalistak)

13,00ean: Umeentzat jolasak

14,00etan: Bazkaria

OHARRA: Agertzen den jende guztiarentzat hamarretakoa egongo da.

FINALISTAK:

KATEGORIA BEREZIA, 25000 m

Markel Albisua, Aritz Albisua, Eneko Beretxinaga, Unai Soraluze, Gaizka Soraluze.

LEHENENGO MAILA(20 mendi 1000metrotik gorakoak 5)

Goreti Oya

Borja Urizar

BIGARREN MAILA(15 mendi, 1000 metrotik gorakoak 3)

GAZTE MAILA (Norberak aukeratutako 10 mendi)

Denis Garcia

***JAI EGITARAUEN AZALERAKO BOZETO LEHIAKETAKO
SARI BANAKETA:**

*Maiatzaren 29an, ostirala, arratsaldeko 8.30etan Udal Ki-
rodegiko erakusketa aretoan (Udaleko Kultura Batzordea)*

MUSIKA ESKOLA

Instrumenturen bat jotzen ikasi nahi baduzue edo gure talde baten partehartzaile izan nahi baduzue guregana jo dezakezuela gogorarazten dizuegu. Anima zaitetzte!!

OHARRA: Urre eta zilar koloreko erloju bat galdu baduzue jarri gurekin harremanetan!

AGENDA

Ekainaren 19an, Ostirala (Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta)

- Arratsaldeko 5etan.

Ipuin Lehiaketako Sari banaketa, Plaza Berrian

- Arratsaldeko 6etan

Antzezkiuna “ GIÑOL” Taldea “Euskal Ipuinak”

EKAINAREN 23an...

SORGINEN ORDUA!!!



*Pil-Pileanekoon es-
kutik Sorgin
Dantza dantza-
tuko da San Juan
Bezperan.*

*Sorgin Dantza
ikasi nahi duena
etor dadila Asteaz-
kenetan gaueko
9tan Pil-
Pileaneko loka-
lera.*

Maisuen Etxea.



Rogelio Botanz
+... (puntos suspensivos)

tic, tac, ti

ROGELIO
BOTANZ
(TALLER
CANARIO)

BERE BAKARKAKO
LEHEN LANA
KOLABORAZIO
BEREZIEKIN



hiru truku



chiqui perez



trío en serie

GAZTELUPEKO HOTSAK • 94 postakutxa • 20590 SORALUZE
Tel. & Fax : 943 75 30 16



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.



Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak duzu.

Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ak nahiago du ohiko Eperako Aurrezkiak, nahiz eta epearen eragozpena izan.

Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkiak dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberetara gozaten jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkiak. Eperako aurrezkiak bezalakoa, baina eperik gabe.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901-333 444 telefonoan.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

08000195/01-98

Pil
bi ean

ZORIONAK!!

SORALUZEKO

æek

EUSKALTEGIA



EUSKARAZ BIZI

Euskaraz Bizi!!

izan eskatzen! **æek**

Maisuen etxea

Tfnoa. 943 75 14 34

SORALUZE